

**Gipuzkoako
Aldizkari
Ofiziala****Boletín
Oficial de
Gipuzkoa****239**

2025eko abenduaren 15a, astelehena

3**TOKI ADMINISTRAZIOA****HERNANIKO UDALA***Iragarkia*

Hernaniko Udalak, 2025eko abenduaren 2an eginiko Osoko bilkuran, Hernaniko Udalaren 2026-2028 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu du. Planaren testu osoa jendaurrean jartzen da, horren berri izan dezan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Aipatutako agiria plangintza tresna da, ez du maila normatiborik. Plan hau onartzeak ez du inolako eskubiderik sortzen, ez eta betebeharririk administrazioarentzako.

Erabakia behin betikoa da, eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Horren aurka berraztertzeke errekurtsua jarri ahal izango dute egintza eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu, bi hilabeteko epean, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian. Epea, argitalpena egiten den hurrengo egunetik aurrera kontatuko da.

Hernani, 2025eko abenduaren 2a.—Xabier Lertxundi Asteasuinzarra, alkatea. (8337)

Hernaniko Udala. 2026-2028 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.

ATARIKOA

Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak ezartzen du administrazio publiko bakoitzak Dirulaguntzen Plan Estrategiko bat prestatu behar duela. Plan hori dirulaguntzen gastu publikoaren kudeaketan kudeaketa-elementu gisa eta eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko tresna gisa erabiliko da eta lortu beharreko helburuak eta lortu nahi diren ondorioak aurreikusitako kostuekin eta horien finantzaketarekin erlazionatzea ahalbidetuko du, dirulaguntzen bidez bete beharreko behar publikoak eskura dauden baliabideetara egokitzeko, eta hori guztia dirulaguntza eman aurretik.

Gainera, Legeak jarraipen-sistema bat planteatzen du, helburuen kontrol eta ebaluazioaren bidez. Sistema horrek ahalbidetu behar du lortu nahi den helburuen lorpen-mailara iristen ez diren edo inbertitutako baliabideen mailara egokitzen ez diren dirulaguntzen lerroak aldatu edo ordeztu ahal

izatea, eraginkorragoak diren beste batzuekin, edo, hala badagokio, desagerrarazi ahal izatea.

Administrazioaren ikuspegitik, dirulaguntzak interes orokorrekoak hartzen diren jokabide jakin batzuk sustatzeko teknika bat dira. Era berean, Administrazio publikoaren eta partikularren arteko lankidetzaren prozedura bat ere badira, interes publikoko jarduerak kudeatzeko. Izaera askotako dirulaguntzak daude, prozedura konplexuen bidez ematen direnak, eta, beraz, jarraipen eta kontrol eraginkorrak egin behar zaizkie.

Horrela, Plana dirulaguntzen emanketa gardentasunaren eta aurrekontu-orekaren printzipioak errespetatuz antolatze beharrezko osagarri gisa eratzten da.

Plan hau hainbat urtetarako balio dezan prestatu da, eta urtero egin beharreko berrikuspenak egingo zaizkio.

Horiek horrela, Udal honek Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu du. Hona hemen plan horren artikulua:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Hernaniko Udalak eta haren menpeko erakundeek dirulaguntzak ematerakoan honako hauek bete beharko dituzte: Hernaniko Udalean indarrean dagoen dirulaguntzak emateko araudia, Dirulaguntzen Lege Orokorra, Plan hau, dagozkion hitzarmenak eta dirulaguntzak emateko urtero egingo diren deialdien oinarriak.

2. artikulua.

Plan honetan aurreikusitako dirulaguntzak benetan eraginkorrak izan daitezen, urte bakoitzeko udal-aurrekontuetan dagozkion diru-kontsignazioak sartu beharko dira, eta dirulaguntza horiek emateko oinarri arautzaileak onartu beharko dira.

Dirulaguntzak aurrekontuetan jasotzeko eta emateko aurrekontu-egonkortasuneko helburuak bete beharko dira; eta, beraz, onartuko diren aurrekontu kontsignazioak eta dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak uneoro helburu horietara egokitu beharko dira.

3. artikulua.

Dirulaguntza Plan Estrategiko hau onartzeak ez du inolako eskubiderik sortzen onuradun izan daitezkeen haienentzat, eta ezingo dute inolako kalte ordainik edo konpentsaziorik eskatu Plana ez bada bere horretan betetzen.

4. artikulua.

Udalak deialdi publiko bidez edo lankidetzaren hitzarmenak izenpetuz emango dizkie dirulaguntzak pertsona, elkarte edo erakunde pribatuei, onura publikoko edo gizarte-intereseko jarduerak egiteko edo udal eskumeneko helburu publikoak lortzeko.

5. artikulua.

Hauek dira Plan honen printzipio orokorrak:

—Publizitatea eta lehia askea, funts publikoen banaketan objektibotasuna, gardentasuna, publikotasuna, lehia eta berdintasuna bermatzen dituen aurretiazko deialdi baten bidez, alde batera utzi gabe dirulaguntzak zuzenean emateko aukera ere egongo dela, aplikatu beharreko arauan ezarritakoaren arabera, eta aurrez dagokion aurrekontu-kontsignazioa izanda.

—Dirulaguntzak deialdian aurrez ezarritako irizpide objektiboen arabera ematea, onuradun izan daitezkeenek irizpide horiek zein izango diren aldez aurretik jakingo dutela bermatzeko.

—Eraginkortasuna jarritako helburuak betetzerakoan eta efizientzia baliabide publikoak esleitzerakoan, kuantitatiboki eta kualitatiboki justifikatuta.

—Dirulaguntza eskatzen duten erakundeek helburuak diruz lagundutako jardueretan berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioetara egokitzen direla kontrolatzea eta aztertzea.

—Plan Estrategikoaren egokitasuna etengabe egiaztatzea. Hau da: Plana termino sozialetan justifikatzea. Planak kontuan hartzen dituen herritarren beharrak. Finantza gaitasuna. Arlo horretako udal eskumenaren azalpena.

—Dirulaguntza-deialdiek udal-intereseko zeharkako politikak sustatuko dituzte, hala nola, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta euskararen sustapena.

6. artikulua.

Laguntzak edo dirulaguntzak emateko, eta beraz, Dirulaguntzen Plan Estrategikoa gauzatzeko eskumena duen organoa indarrean dagoen eskuordetze- araubidearen arabera zehaztuko da. Beraz:

—Dirulaguntza programak aurrekontu zuzkidura egokia eta nahikoa egotearen baldintzapean egongo dira.

—Dirulaguntzak edo zuzeneko dirulaguntzak (hitzarmenak) eman aurretik gastua onartu beharko da, Hernaniko Udaleko aurrekontu arauetan aurreikusitakoaren arabera.

—Eta, azkenik, dirulaguntzak eman aurretik, dirulaguntzak ematea arautzen dituzten arauak edo oinarriak onartu beharko dira.

II. KAPITULUA

PLANAREN EDUKIA

7. artikulua.

Hernaniko Udalak eta haren mendeko erakundeek dirulaguntzak ezarriko dituzte urtero, honako ildo estrategiko eta jarduera-helburu espezifiko hauen arabera:

* 1. lerro estrategikoa. Gizarte ekintza.

Helburu estrategikoa:

—Hernaniarren bizi kalitate eta gizarte ongizate mailak igotzea. Arreta berezia jarrita zaugarritasun-egoeran dauden kolektiboen bizi-baldintzak hobetzean (adineko emakumeak, migratzaileak, guraso bakarreko familiaburuak, aniztasun funtzionala duten pertsonak, indarkeria matxista jasan duten emakumeak, iraupen luzeko langabetuak...).

—Genero berdintasuna, emakume eta gizonen arteko parekidetasuna lortzera begira.

—Hirugarren adineko pertsoneri arreta duina bermatzea.

Ekimen zehatzak:

1.1. Gizarte zerbitzuetako baliabideei eta horiek eskuratzeko bideei buruzko informazioa ematea, emakumeek eta gizonak eduki ditzaketen egoera, behar eta interes berezituak arreta jarrita.

1.2. Gizarte kalte-beratasun egoeran daudenen oinarriko beharrei, behar zehatz eta ezohikoei, norbanakoei eta familiakoei erantzutea eta zaugarritasun-egoeran dauden kolektiboen (adineko emakumeak, migratzaileak, guraso bakarreko familiak, aniztasun funtzionala duten pertsonak, indarkeria matxista jasan duten emakumeak, iraupen luzeko langabetuak...) bizi-baldintzak hobetzeko eta pobrezia-aren feminizazioarekin amaitzen laguntzeko neurriak hartzea.

1.3. Zailtasun- edota arrisku-sozialeko egoera txikitzeko edo desagertzeko lan egitea. Arazoak edo zailtasunak agertzea ekiditea, arrisku faktoreak antzemandakoan modu prebentiboan esku hartuz.

1.4. Hernaniko enpresek langabezian dauden pertsonak merkatu arruntean kontrata ditzaten erraztasunak jartzea.

1.5. Irabazi asmorik gabeko gizarte ekimena, erakundeekiko jarduera koordinatua eta gizarte parte hartze aktiboa sustatzea, emakumeen parte-hartze soziala handitzeko neurriak hartuz.

1.6. Jubilatuen elkarteek eta emakumeen elkarteek jarduerak egitea sustatzea eta elkartzeko erabiltzen dituzten lokalak mantentzen laguntzea.

1.7. Etxebizitzen alokairu soziala bultzatzea, herritarrei oro har, eta gazteei bereziki etxebizitza alokatzeko laguntzak emanez.

1.8. Giza eskubideak eta bizikidetzak sustatzea.

1.9. Mikrokreditu programa garatzea, gizarte eta finantza bazterketa arriskuan dauden pertsonentzako finantza esku-hartze bateratu egiteko.

1.10. Zaintzaileen arretarako lan larria.

Exekuzio epea: Urterokoa.

Finantzaketa iturriak: Udalaren funts propioak, udal-aurrekontuaren eta beste erakunde publiko batzuen dirulaguntzen kontura.

* 2. lerro estrategikoa. Hezkuntzaren sustapena.

Helburu estrategikoa:

—Hezkuntza-berrikuntza sustatzea eta udalerriko kultura-eskaintza hobetzea, udalerriko bizilagunei oro har gai hauekin lotutako jarduera eta proiektuak zuzenduz: hezkuntza, kultura, berdintasuna, ingurumen- aniztasuna eta inklusibotasuna.

—Herrian garatuko diren hezkuntza-egitasmoak hezkidetzailleak izatea, pertsonen arteko tratua onak eta parekideak sustatuko dituztenak, eta indarkeria matxista prebenituko dutenak.

Ekimen zehatzak:

2.1. Hezkuntza arautuaren eremuan Hernanin lanean ari diren irabazi asmorik gabeko ikastetxeen jarduerak eta proiektuak finantzatzeko dirulaguntzak ematea.

2.2. Hezkuntzarekin lotura duten eragileei hezkuntza-berrikuntza sustatzeko dirulaguntzak ematea.

Exekuzio epea: Urterokoa.

Finantzaketa iturriak: Udalaren funts propioak, urteroko aurrekontuaren kontura.

* 3. lerro estrategikoa. Kultura dinamizazioa.

Helburu estrategikoa:

—Udalerriko kultur sarea babestea, zabaltzea eta sustatzea, inplikaturako eragileen profesionaltasuna bultzatuz eta kultur sorkuntzari laguntzeko ereduak sendotuz.

—Kultura, arte nahiz bestelako sorkuntza-ekoizpenetan emakumeen ikusgarritasuna eta parte-hartzea sustatzea.

—Sexu-genero, rol eta estereotipo tradizionalak zalantzan jartzea.

Ekimen zehatzak:

3.1. Udalerriko kultur sarea babestea, zabaltzea eta sustatzea, kultur sorkuntzari laguntzeko ereduak sendotuz.

3.2. Herritarrei oro har zuzendutako ondorengo diziplinetako sorkuntzara, ekoizpena eta kultur hedapenera bideratutako programa eta jarduerak babestea, zabaltzea eta sustatzea: musika, dantza, antzerkia, folklorea, arte plastikoak, ikus-entzunezkoak, argitalpenak eta abar.

3.3. Gazteen parte hartzea babestea, zabaltzea eta sustatzea gazteentzako jarduerak antolatuz.

3.4. Euskal historiaren eta kulturaren balore propioak transmititzeko programak edota jarduerak babestea, zabaltzea eta sustatzea.

3.5. Irabazi asmorik gabeko elkarten jarduera eta udalerraren interes orokorrean eragiten duten jarduerak babestea.

Exekuzio epea: Urterokoa.

Finantzaketa iturriak: Udalaren funts propioak, urteroko aurrekontuaren kontura.

* 4. lerro estrategikoa. Euskararen sustapena.

Helburu estrategikoa:

—Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea eta normalizatzea, hizkuntzaren ezagutzan, erabileran nahiz transmisioan generoaren eragina kontuan hartuta.

Ekimen zehatzak:

- 4.1. Adin nagusikoei euskara ikasteko erraztasunak eskaintzea.
- 4.2. Merkataritzan eta enpresetan euskararen erabilera sustatzea.
- 4.3. Herritarrak aktibatzea, motibatzea eta aukerak sortzea euskara erabiltzeko.
- 4.4. Tokiko euskarazko komunikabideen bideragarritasuna bermatzea.
- 4.5. Euskararen erabilera normalizatzeko udal jarduera zehaztutan laguntzea.
- 4.6. Herrian aisialdia euskaraz izan dadin sustatzea.
- 4.7. Euskal Herritik kanpoko herritar etorri berriak euskarara hurbil daitezten eta ikas dezaten sustatzea eta erraztea.

Exekuzio epea: Urterokoa.

Finantzaketa iturriak: Udalaren funts propioak, urteroko aurrekontuaren kontura.

* 5. lerro estrategikoa. Kirolaren sustapena.

Helburu estrategikoa:

—Herritar guztiei beraien kirol-jarduera eskaera asetzeko aukera ematea eta bizi-kalitatea hobetzeko jarduera osasungarriak sustatzea kirol-erakunde, elkarte eta federazioekin elkarlanean arituz eta genero-ikuspegia txertatuz.

—Kiroleko nahiz jarduera fisikoko jarduera guztietan emakumeen parte-hartzea sustatzea.

—Kirolaren bidez sortu eta indartzen diren genero-rol tradizionalak eta estereotipoak zalantzan jartzea.

—Adin-tarte guztietarako kirol eskaintza egokitua garatzea, haur, gazte, heldu eta adinekoentzat, bizi-ziklo osoan jarduera fisikoa sustatzeko.

—Ingurumenarekiko errespetua bultzatzea kirol jardueretan, jarduera jasagarriak eta natur inguruneetan burututako kirolak sustatuz.

—Kirolari lotutako boluntarioritza sustatzea, herritarren parte-hartze aktiboa bultzatuz.

—Kirolaren gaineko hezkuntza eta kontzientziazio-kanpainak garatzea, jarduera fisikoaren onura

fisiko, psikologiko eta sozialak ezagutarazteko.

—Desgaitasunen bat duten eta egoera zaurgarrien dauden jarduera fisikoa sustatzea.

Ekimen zehatzak:

- 5.1. Ahalik eta jende gehienak kirola egitea sustatzea ohitura osasungarri eta gomendagarria den aldetik.
- 5.2. Elkartegintza sustatzea kirolaren antolaketa eta kirola egitearen ondorioak optimizatzeke.
- 5.3. Herriko kirol elkarteekin elkarlanean aritzea jarduerak egiteko zein kirol instalazio sarea hobetzeko.
- 5.4. Lagatako kirol instalazioen kalitatea hobetzea eta herritarrek horiek erabiltzea.
- 5.5. Kirol elkarteetan oinarritzko kirol federatua sustatzea.
- 5.6. Ikastetxeetan eskola-kirola sustatzea.
- 5.7. Kirola kalean egitea sustatzea.
- 5.8. Desgaitasuna dutenei eta egoera zaurgarrian daudenei egokitutako kirol-jarduerak eskaintzea eta instalazio irisgarriak bermatzea.
- 5.9. Auzoka jarduera fisikoak antolatzea (kale-jolasak, bizikleta-martxak, auzoaren eguna...).
- 5.10. Kirolaren eta ingurumenaren arteko lotura lantzea: natura ibilbideak, mendiko martxak, ingurumen-heziketa kirolarekin uztartuta.

Exekuzio epea: Urterokoa.

Finantzaketa iturriak: Udalaren funts propioak, urteroko aurrekontuaren kontura.

* 6. lerro estrategikoa. Sustapen ekonomikoa eta soziala.

Helburu estrategikoa:

—Garapen ekonomiko jasagarriaren eta enplegu sustapenaren alde egitea, bereziki aintzat hartuta emakumeek lan-merkatuan gaur egun bizi duten egoera (gizonek baino langabezia-tasa altuagoak, lan-baldintza kaxkarrak, etab.).

—Herritar guzien bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzeko neurriak sustatzea, arreta berezia jarrita zaurgarritasun-egoeran dauden kolektiboetan (adineko emakumeak, migratzaileak, guraso bakarreko familiaburuak, aniztasun funtzionala duten pertsonak, indarkeria matxista jasan duten emakumeak, iraupen luzeko langabetuak...).

—Ingurunearen babesa. Kutsaduraren eraginak.

Ekimen zehatzak:

6.1. Enplegua sortu eta baliabideen jasagarritasuna bermatzen duten enpresa proiektuak hazten eta finkatzen laguntzea.

6.2. Kalitatezko enpleguaren sorrera sustatzea.

6.3. Hernaniko enpresek langabe dauden pertsonak merkatu arruntean kontrata ditzatela erraztea.

6.4. Gazteen enplegu sustapena.

6.5. Udalerriko jarrera ekintzailea dinamizatzea.

6.6. Ingurunearen hobekuntza eta babes ekimenak sustatu. Herritarren artean ingurune praktika egokiak sustatzeko ekimenak.

6.7. Udalerriko etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak hobetzea irisgarritasunari eta kutsadura akustikoari dagokienez.

6.8. Auzoetako bizigarritasun-baldintzak hobetzea.

6.9. Gertuko merkataritza dinamizatzea eta sustatzea.

6.10. Turismoa sustatzea, turismo-operadore publiko eta pribatuekiko loturak indartuz eta eskaintzaren berrikuntza eta dinamismoa bultzatuz.

6.11. Gizarte-bazterkeriako egoerak arintzeko laguntzak ematea, gizarte-larrialdietarako laguntzen programei buruzko araudi autonomikoaren babesean, bai eta udal-araudi propioaren babesean ere.

Exekuzio epea: Urterokoa.

Finantzaketa iturriak: Eusko Jaurlaritzaren finantzaketa (Pobreziaren aurkako Larrialdi Planaren programa) eta Udalaren funts propioak, urteroko aurrekontuaren kontura.

* 7. lerro estrategikoa. Kulturartekotasunaren sustapena-.

Helburu estrategikoa:

— Herrian bizi den orok, edonon jaioa dela ere, eskubide berberak izan ditzan bultzatzea.

— Kulturartekotasuna sustatzea, jatorri eta kultur aniztasuna aberastasun eta aukera gisa ikus dadin lan eginez.

— Emakumeek eta gizonek eduki ditzaketen egoera, behar eta interes berezituak aintzat hartzea.

Ekimen zehatzak:

7.1. Hernanin kulturartekotasuna eta jatorri ezberdinekoei eskubide berdintasunaren alde genero ikuspegitik lan egiten duten irabazi asmorik gabeko elkarten jarduna diruz laguntzea.

Exekuzio epea: Urterokoa.

Finantzaketa iturriak: Udalaren funts propioak, urteroko aurrekontuaren kontura.

* 8. lerro estrategikoa. Internazionalismoa eta txirotutako beste herriekiko elkartasuna.

Helburu estrategikoa:

— Internazionalismoa eta herrien arteko elkartasuna sustatzea.

— Mundu mailako desberdintasunak abiapuntutzat hartuta, lankidetzan eta elkartasunean oinarritutako harremanak bultzatzea herrialde ezberdineko herritarren artean, guztion garapena helburu izanda.

Ekimen zehatzak:

8.1. Nazioarteko lankidetzak eskaini txirotutako beste herriei, eta babesak desberdintasunak gainditzeko lanean genero ikuspuntutik diharduten kolektibo eta erakundeei.

8.2. Garapenerako sentsibilizazioa eta hezkuntza, gogoeta egiteko, formazioa sustatzeko eta hernaniarren gaitasun kolektiboak indartzeko baliabide gisa.

Exekuzio epea: Bi urterokoa.

Finantzaketa iturriak: Udalaren funts propioak, urteroko aurrekontuaren kontura.

8. artikulua.

Ekitaldirako udal aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza jardueraren arabera:

I. eranskinean Hernaniko Udalaren dirulaguntzen jarduera zerrendatu eta xehatzen da, ildo estrategikoa adierazita.

II. eranskinean Ereñotzuko Toki Entitate Txikiaren dirulaguntza-jarduera xehatzen da, Udalaren menpeko erakundea den neurrian.

Eranskin hauek informazio gisa txertatzen dira, eta urtero eguneratuko dira plana indarrean dagoen bitartean, aurrekontuak onartzeko eta aldatzeko akordioen bidez.

9. artikulua.

Eranskin bakoitzak aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntzak antolatzen ditu, irizpide hauen arabera:

—Xedea. Irizpide horren arabera dirulaguntza zein helburutarako erabiliko den zehazten da, gero helburu hori ebaluatu ahal izateko.

—Zenbatekoa. Urteko kontsignazioari dagokiona.

—Kudeaketa mota. Irizpide horren bidez dirulaguntza emateko aplikatu beharreko prozedura bereizten da (lehia askea, lankidetzak hitzarmena, programa).

—Lerroa. Dirulaguntzaren xedea biltzen duen ildo estrategikoa.

—Kudeaketaz arduratzen den Saila.

—Helburuen betetze-mailaren adierazleak.

III. KAPITULUA

DIRUZ LAGUNDUTAKO PROGRAMEN ERAGINKORTASUNA EBALUATZEA. EMAITZEN KONTROLA ETA AZTERKETA

10. artikulua.

Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren kontrola eta jarraipena urtean behin egingo da, bi alderdi hauetan:

1. Emandako dirulaguntzen kontrol ekonomiko-finantzarioa, Udaleko Kontu-hartzaitzari esleitua eta indarrean dagoen legerian jasotako baldintzetan egingo dena.

2. Planaren kontrola eta jarraipena, helburu hauekin:

— Dirulaguntza lerroak aldatzea edo eguneratzea.

— Zenbatekoak eguneratzea.

— Jarduketa-ildo berriak sartzea.

11. artikulua.

Aurrekoaren kalterik gabe, dirulaguntzak izapidetzeaz ardura duten administrazio unitateetako arduradunek, txosten bidez, espedientean jasota utziko dute garapen edo izapide fase desberdinetan udal akordioak hartzeko legez eskatu daitezkeen betebeharrak bete direla (eskabideak onartzea, horiek baloratzea, emateko proposamena egitea eta laguntzen bukaerako justifikazioa eta likidazioa).

12. artikulua.

Dirulaguntza ematen duen administrazio unitateetako teknikari arduradunek azken memoria txostena egingo dute, eta bertan zehaztu lortu nahi diren helburuen betetze-mailari buruzko adierazleak eta balorazio orokorra, bai eta programa mantentzea edo ezabatzea komeni den. Horretarako, Planaren jarraipena egiteko prestatutako fitxa eredu erabiliko da. Txosten hau, tramitazio organoari aurkeztuko zaio, eta espedientearen parte izango da.

13. artikulua.

Gardentasuna. Lerro estrategiko bakoitzean emandako dirulaguntza guztiak urtero argitaratuko dira udal webgunean, eta bertan honako hauek adieraziko dira: erakunde hartzailea, zenbatekoa eta diruz lagunduko den proiektua.

IV. KAPITULUA

FINANTZAKETA ETA KUDEAKETA

14. artikulua.

Hernaniko Udalak eta haren menpeko erakundeek ematen dituzten dirulaguntzak funts propioekin finantzatuko dira, erakunde bakoitzaren indarreko ekitaldiko aurrekontuetako IV. eta VII. kapituluaren kontura.

15. artikulua.

Plan honi erantsitako eranskinak aldatzeko, dela dirulaguntza-lerro berriak ezartzeagatik, dela indarrean daudenak kentzeagatik, ez da plana aldatu behar. Aldaketa horiek, kasuan kasu, aurrekontuak onartzeko edo aldatzeko osoko bilkuraren erabakiaren bidez sartu direla ulertzen baita.

Azken xedapena.

Dirulaguntzen Plan hau indarrean jarriko da planaren testu osoa Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 70.2 artikulua xedatzen duen ondorioetarako Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denean, eta indarrean jarraituko du Udalaren udalbatzarrak aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

HERNANIKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE HERNANI

Partida zk. Cód. partida	Azalpena Concepto	Zenbatekoa (€) Importe (€)	Deialdi mota Tipo concesión	Saila Depto.	Lerroa Linea act.	Betetze adierazleak Indicadores
1410.480.01.151.10	ETXEBIZITZA BIRGAITZE LANAK. Eraikin partikularretan irigarritasun, energia aurrezte... lanak sustatzeko diru- laguntza. Rehabilitación viviendas.	25.000	Deialdia/ Concurrencia	Hirigintza	VI	1- Eskaera kopurua/ N.º solicitudes
1710.481.01.230.01	DIRULAG. ZERBITZU SOZIALAK ERAKUNDEAK. Irabazi asmorik gabeko erakundeei dirulaguntzak. Subv. Entidades servicios sociales.	35.000	Deialdia/ Concurrencia	Zerbitzu Sozialak	VIII	1- Eskaera kopurua/ N.º solicitudes 2- Onuradun kopurua/ N.º beneficiarios 3- Diruz lagundutako egitasmo kopurua/ N.º actividades

Partida zk. Cód. partida	Azalpena Concepto	Zenbatekoa (€) Importe (€)	Deialdi mota Tipo concesión	Saila Depto.	Lerroa Línea act.	Betetze adierazleak Indicadores
1622.481.01.231.00	MAITELAN KOOP. ELKARTEA. Hitzarmena, zaintzaileen arretarako programa. MAITELAN. Cooperativa de cuidados. Programa atención a las cuidadoras.	45.000	Izenduna/ Nominativa	Zerbitzu Sozialak	I	Arreta emandako zaintzaile kopurua/ N.º solicitudes
1610.481.02.231.05	GOIZ EGUZKI ERRETIRATUEN ELKARTEA. Asociación jubilados GOIZ EGUZKI.	18.000	Izenduna/ Nominativa	Zerbitzu Sozialak	I	Jarduera kopurua/ N.º actividades
1622.481.02.231.01	LANKIDETZA DIRULAGUNTZAK. Herrialdeen garapenerako dirulaguntzak. GKE aurkeztutako egitasmoak. Bi urtean behin. Proyectos cooperación.	116.000	Deialdia/ Concurrencia	Politika Sozialak	VIII	1- Eskaera kopurua/ N.º solicitudes 2- Onuradun kopurua/ N.º beneficiarios 3- Diruz lagundutako egitasmo kopurua/ N.º actividades
1622.481.04.231.01	DIRULAG. ZUZENAK. LANKIDETZA. Lankidetzaren ekimen eraldatzaileak eta urgentziazko gertaerei aurre egiteko. UNRWA-Nazio Batuen agentzia. Proyectos cooperación transformadores. Ayudas de situaciones de Emergencia. UNRWA-Organización Naciones Unidas.	7.355	Zuzena interes orokorra/ Directa Interes general	Politika Sozialak	VIII	1- Eskaera kopurua/ N.º solicitudes 2- Onuradun kopurua/ N.º beneficiarios 3- Diruz lagundutako egitasmo kopurua/ N.º actividades
1622.481.03.231.01	DIRULAG. LANKIDETZA.EUSKAL FONDOA. Euskal fondoak erakundeak Garapen herrialdeetan kudeatutako proiektuak. Proyectos cooperación de Euskal Fondoak.	35.000	Izenduna/ Nominativa	Politika Sozialak	VIII	1- Eskaera kopurua/ N.º solicitudes 2- Onuradun kopurua/ N.º beneficiarios 3- Diruz lagundutako egitasmo kopurua/ N.º actividades

Partida zk. Cód. partida	Azalpena Concepto		Zenbatekoa (€) Importe (€)	Deialdi mota Tipo concesión	Saila Depto.	Lerroa Linea act.	Betetze adierazleak Indicadores
1622.481.03.231.02	DIRULAG.: AMHER. AMHER Elkartarekin hitzarmena. Convenio colaboración asociación AMHER.		83.000	Izenduna/ Nominativa	Politika Sozialak	VII	1- Eskaera kopurua/ N.º solicitudes 2- Onuradun kopurua/ N.º beneficiarios
1620.480.02.231.03	BEGIRALE. DIRULAG.-GAZTERIA. Begirale tituloa lortzeko diru-laguntzak: begirale eta zuzendari. Ayudas para obtener el título de Monitor.		2.000	Deialdia/ Concurrencia	Gazteria	I	1- Eskaera kopurua/ N.º solicitudes 2- Onuradun kopurua/ N.º beneficiarios
1130.480.02.231.04	ALOKAIRU DIRULAGUNTZAK- GAZTEAK. Etxebizitza alokairua laguntzeko. Gazteak. Alquiler vivienda jóvenes.		105.000	Deialdia/ Concurrencia	Etxebizitza	I	1- Eskaera kopurua/ N.º solicitudes 2- Onuradun kopurua/ N.º beneficiarios
1130.480.01.231.04	ALOKAIRU DIRULAGUNTZAK- HELDUAK. Etxebizitza alokairua laguntzeko. Helduak. Alquiler vivienda adultos (no jóvenes).		105.000	Deialdia/ Concurrencia	Etxebizitza	I	1- Eskaera kopurua/ N.º solicitudes 2- Onuradun kopurua/ N.º beneficiarios
1130.481.01.231.04	ETXEGURA ELKARTEA. HITZARMENA. Etxebizitza eskubidea sustatzeko ekimenak. Subv. directa ETXEGURA elkarte. Fomento derecho a la vivienda.		22.000	Izenduna/ Nominativa	Toki Garapena	I	1- Egindako jarduerak/ Análisis actividades
1710.480.01.231.11	BAKARKAKO GIZARTE LAGUNTZAK. Ayudas sociales.		25.000	Deialdia/ Concurrencia	Zerbitzu Sozialak	I	1- Eskaera kopurua/ N.º solicitudes 2- Onuradun kopurua/ N.º beneficiarios
1710.480.02.231.11	POBREZIAREN AURKAKO PLAN INTEGRALA. Ayudas sociales.		380.000	Deialdia/ Concurrencia	Zerbitzu Sozialak	I	1- Eskaera kopurua/ N.º solicitudes 2- Onuradun kopurua/ N.º beneficiarios

Partida zk. Cód. partida	Azalpena Concepto		Zenbatekoa (€) Importe (€)	Deialdi mota Tipo concesión	Saila Depto.	Lerroa Línea act.	Betetze adierazleak Indicadores
1511.471.01.241.01	KONTRATAZIO IKLUSIBOA.		10.000	Deialdia/ Concurrencia	Enplegua	I	1- Eskaera kopurua/ N.º solicitudes 2- Onuradun kopurua/ N.º beneficiarios
1510.481.02.439.00	HENASE ELKARTEA. Nekazarien elkarte. Nekazal jarduerak eta elikadura soberania sustatu. Subv. directa Asociación Henase. Asociación de agricultores Hernani. Fomento del primer sector; fomento soberanía alimentaria.		35.000	Izenduna/ Nominativa	Ingurumena	I	1- Eskaera kopurua/ N.º solicitudes 2- Onuradun kopurua/ N.º beneficiarios
1510.471.01.439.00	DIRULAG. NEKAZARITZA SUSTATZEKO JARDUERAK. Actividades Fomento agricultura.		20.000	Deialdia/ Concurrencia	Toki Garapena	I	1- Eskaera kopurua/ N.º solicitudes 2- Onuradun kopurua/ N.º beneficiarios
1510.471.03.439.00	BERTATIK ELIKATUZ laneratze enpresa. Laneratze kontratuak eta tokiko nekazal jarduera sustatzeko Hitzarmena. Subv. directa BERTATIK ELIKATUZ. Empresa trabajo social.		50.000	Izenduna/ Nominativa	Toki Garapena	I	1- Eskaera kopurua/ N.º solicitudes 2- Onuradun kopurua/ N.º beneficiarios
1811.481.01.323.00	DIRULAG.: IKASTETXEA KANPOKO EKINTZ. Eskolaz kanpoko jarduerak antolatzeko. Programa Actividades extraescolares.		38.400	Deialdia/ Concurrencia	Hezkuntza	II	1- Eskaera kopurua/ N.º solicitudes 2- Onuradun kopurua/ N.º beneficiarios
1811.481.01.323.00	Hernaniko Haurreskola Partzuergoa.				Hezkuntza		
1811.481.01.323.00	Colegio La Inmaculada.				Hezkuntza		
1811.481.01.323.00	Ikastola Urumea.				Hezkuntza		
1811.481.01.323.00	Langile Ikastola.				Hezkuntza		
1811.481.01.323.00	Elizatxo Ikastola.				Hezkuntza		
1811.481.01.323.00	Hernani BHI.				Hezkuntza		

Partida zk. Cód. partida	Azalpena Concepto	Zenbatekoa (€) Importe (€)	Deialdi mota Tipo concesión	Saila Depto.	Lerroa Línea act.	Betetze adierazleak Indicadores
1811.481.01.323.00	Hernani Lanbide Heziketa.			Hezkuntza		
1811.481.01.323.00	Txirrita ikastetxea.			Hezkuntza		
1811.481.02.323.00	XANGORIN KOOP. ELKARTEA- JOXEMARI AUZMENDI BEKA. Hitzarmena, hezkuntza alorreko egitasmoak garatzeko beka. Bi urtean behin. Beca Joxemari Auzmendi-Convenio Xangorin Koop. Elk.	0	Izenduna/ Nominativa	Hezkuntza	II	1- Egindako jarduerak/ Análisis actividades
1811.422.01.326.03	DIRULAG. HELDUEN HEZIKETA IRAUNKORRA. Helduen Heziketa Iraunkorra-EPA. Programa Enseñanza adultos.	3.600	Izenduna/ Nominativa	Hezkuntza	II	1- Egindako jarduerak/ Análisis actividades
1910.481.01.334.00	DIRULAG.: KULTURA (NORGEHIAGOKA). Kultur jarduerak antolatzeko. Actividades culturales asociaciones.	66.000	Deialdia/ Concurrencia	Kultura	III	1- Eskaera kopurua/ N.º solicitudes. 2- Ekintza kopurua/ N.º actividades 3- Partehartzeile kopurua/ N.º participantes
1910.481.01.338.00	DIRULAG. JAIK. ELKARTEAK Jaietako ekitaldiak antolatzeko. Fiestas San Juan: Actividades culturales asociaciones.	58.000	Deialdia/ Concurrencia	Kultura	III	1- Eskaera kopurua/ N.º solicitudes. 2- Ekintza kopurua/ N.º actividades 3- Partehartzeile kopurua/ N.º participantes
1910.481.02.334.00	HAUSER&WIRTH SAN SEBASTIAN S.L. CHILLIDA LEKU Museoa hitzarmena. Convenio Chillida Leku.	20.000	Izenduna/ Nominativa	Kultura	III	1- Egindako jarduerak/ Análisis actividades

Partida zk. Cód. partida	Azalpena Concepto	Zenbatekoa (€) Importe (€)	Deialdi mota Tipo concesión	Saila Depto.	Lerroa Línea act.	Betetze adierazleak Indicadores
1910.480.01.334.00	DIRULAG. ARTE SORKUNTZA. Arte sorkuntzarako bekak. Creaciones artísticas.	15.000	Deialdia/ Concurrencia	Kultura	III	1- Egindako jarduerak/ Análisis actividades
1910.481.05.334.00	HERBURU ELKARTEA. Hernaniko erraldoi eta buruhandien konpartsa.	16.000	Izenduna/ Nominativa	Kultura	III	1- Egindako jarduerak/ Análisis actividades
1910.421.01.334.00	DIRULAG. UDALBILTZA PARTZUERGOA Guretik sortua egitasmoa. Convenio consorcio Udalbiltza. Proyecto "Guretik sortua".	0	Izenduna/ Nominativa	Kultura	III	1- Egindako jarduerak/ Análisis actividades
1910.481.02.334.10	DIRULAG.: AUZO ELKARTEAK. Auzoetako kultur jarduerak antolatzen. Actividades culturales asociaciones de vecinos.	158.500	Deialdia/ Concurrencia	Kultura	III	1- Eskara kopurua/ N.º solicitudes. 2- Ekintza kopurua/ N.º actividades. 3- Partehartzeile kopurua/ N.º participantes
1910.481.03.334.00	DIRULAGUNTZA: MUSIKA BANDA. Hitzarmena. Musika Banda. Convenio colaboración asociación.	96.000	Izenduna/ Nominativa	Kultura	III	1- Egindako jarduerak/ Análisis actividades
1910.481.04.334.00	DIRULAGUNTZA: HERNANIKO HERRI MUSIKA ELKARTEA. Hitzarmena. Txistulari Banda. Convenio colaboración asociación.	43.000	Izenduna/ Nominativa	Kultura	III	1- Egindako jarduerak/ Análisis actividades
1910.481.06.334.00	DIRULAGUNTZA: SAN JOAN KONPARTSA. Hitzarmena. Convenio colaboración asociación.	30.000	Izenduna/ Nominativa	Kultura	III	1- Egindako jarduerak/ Análisis actividades
1910.481.07.334.00	DIRULAGUNTZA: TTARLA DANTZA TALDEA. Hitzarmena. Convenio colaboración asociación.	8.000	Izenduna/ Nominativa	Kultura	III	1- Egindako jarduerak/ Análisis actividades

Partida zk. Cód. partida	Azalpena Concepto		Zenbatekoa (€) Importe (€)	Deialdi mota Tipo concesión	Saila Depto.	Lerroa Línea act.	Betetze adierazleak Indicadores
1810.481.01.335.00	DIRULAG.: EUSKARA (NORGEHIAGOKA). Euskara sustatzeko laguntzak. Fomento euskara asociaciones.		65.000	Deialdia/ Concurrencia	Euskara	IV	1- Eskaera kopurua/ N.º solicitudes 2- Onuradun kopurua/ N.º beneficiarios
1810.481.02.335.00	DIRULAG.: EUSKARA (ZUZENAK). Euskara sustatzeko laguntzak. Fomento euskara asociaciones. Subvenciones directas.		166.250	Izenduna/ Nominativa	Euskara	IV	1- Egindako jarduerak/ Análisis actividades
1810.481.02.335.00	Bertso Eskola.	5.750		Izenduna/ Nominativa			
1810.481.02.335.00	Bertsularien Lagunak.	1.000		Izenduna/ Nominativa			
1810.481.02.335.00	EHE-Euskal Herrian Euskaraz.	1.000		Izenduna/ Nominativa			
1810.481.02.335.00	Dobera Euskara Elkartea.	32.000		Izenduna/ Nominativa			
1810.481.02.335.00	Dobera Euskara Elkartea-Euskaraz ari du proiektua.	26.000		Izenduna/ Nominativa			
1810.481.02.335.00	Euskaraz kooperatiba-AEK-Zilegi eskola.	25.000		Izenduna/ Nominativa			
1810.481.02.335.00	Gizarte Erakundeen Kontseilua.	2.000		Izenduna/ Nominativa			
1810.481.02.335.00	Dobera Euskara Elk.-Hernaniko Kronika.	70.000		Izenduna/ Nominativa			
1810.481.02.335.00	Hizkuntza Eskubideen Behatokia.	1.800		Izenduna/ Nominativa			
1810.481.02.335.00	Komunikazio Biziagoa-Argia.	1.000		Izenduna/ Nominativa			
1810.481.02.335.00	UEU.	700		Izenduna/ Nominativa			
1810.481.02.335.00	AEK-Korrika Kulturala.	0		Izenduna/ Nominativa			
1820.480.01.335.10	BEKAK EUSKALTEGIA. Euskara ikasteko beka. Programa Becas Euskaltegia.		28.000	Deialdia/ Concurrencia	Euskara	IV	1- Eskaera kopurua/ N.º solicitudes 2- Onuradun kopurua/ N.º beneficiarios

Partida zk. Cód. partida	Azalpena Concepto		Zenbatekoa (€) Importe (€)	Deialdi mota Tipo concesión	Saila Depto.	Lerroa Línea act.	Betetze adierazleak Indicadores
2010.481.01.341.00	DIRULAG.: KIROL EKINTZAK. Kirol ekintzak antolatzeke. Actividades deportivas asociaciones.		81.000	Deialdia/ Concurrencia	Kirola	V	1- Eskaera kopurua/ N.º solicitudes 2- Onuradun kopurua/ N.º beneficiarios
	1. lerroa. Kirol ekintza arruntak	65.000					
	2. lerroa. Ezohikoak (Txapelketa...)	6.000					
	3. lerroa. Bereziak (inklusioa...)	10.000					
2010.481.02.341.00	ESKOLA KIROLA. Programa Eskola Kirola.		70.000	Deialdia/ Concurrencia	Kirola	V	1- Eskaera kopurua/ N.º solicitudes 2- Onuradun kopurua/ N.º beneficiarios
2010.481.03.341.00	DIRULAGUNTZAK KIROL KLUBAK. Convenio colaboración Club deportivos.		86.800	Izenduna/ Nominativa	Kirola	V	1- Eskaera kopurua/ N.º solicitudes 2- Onuradun kopurua/ N.º beneficiarios
2010.481.03.341.00	CD Hernani.	42.552		Izenduna/ Nominativa	Kirola		
2010.481.03.341.00	CD Hernani. Atletismo saila.	3.763		Izenduna/ Nominativa	Kirola		
2010.481.03.341.00	Hernani Rugby Taldea.	40.485		Izenduna/ Nominativa	Kirola		
2010.481.04.341.00	DIRULAGUNTZAK ORIAMENDI SL. Convenio colaboración Oriamendi S.L.		10.000	Izenduna/ Nominativa	Kirola	V	1- Eskaera kopurua/ N.º solicitudes 2- Onuradun kopurua/ N.º beneficiarios
1520.481.01.431.00	BERRIAK ELKARTEA. BERRIAK merkatarik hitzarmena. Convenio colaboración asociación.		37.000	Izenduna/ Nominativa	Sozioekonomia	VI	1- Eskaera kopurua/ N.º solicitudes 2- Onuradun kopurua/ N.º beneficiarios

Partida zk. Cód. partida	Azalpena Concepto	Zenbatekoa (€) Importe (€)	Deialdi mota Tipo concesión	Saila Depto.	Lerroa Linea act.	Betetze adierazleak Indicadores
1520.481.03.431.00	EKHILUR KOOPERATIVA. Moneta Sozialaren egitasmoa sustatzeko. Convenio colaboración asociación. Implantación Moneda social	55.000	Izenduna/ Nominativa	Sozioekonomia	VI	1- Eskaera kopurua/ N.º solicitudes 2- Onuradun kopurua/ N.º beneficiarios
1520.481.02.431.00	MERKATARITZA SUSTATZEKO BONOAK. Bonos fomento comercio local.	160.000	Deialdia/ Concurrencia	Sozioekonomia	VI	1- Eskaera kopurua/ N.º solicitudes 2- Onuradun kopurua/ N.º beneficiarios
1520.471.02.431.00	DIRULAG. LOKAL HUTSEN ALOKAIRUA. Programa locales comerciales vacios.	50.000	Deialdia/ Concurrencia	Toki Garapena	VI	1- Eskaera kopurua/ N.º solicitudes 2- Onuradun kopurua/ N.º beneficiarios
1010.481.01.912.00	DIRULAGUNTZA ZUZENAK. GOBERNU ORGANUAK. Interes orokorrekoak/ Larrialdiak. Ayudas directas Alcaldía. Urgencia/Interés general.	1.000	Zuzena interes orokorra/ Directa Interes general	Gobernu Organuak	I	
1010.481.01.912.00	ASOCIACIÓN FIARE. Mikrokreditoen programa. Convenio colaboración asociación FIARE.	0	Izenduna/ Nominativa	Zerbitzu Sozialak	I	1- Eskaera kopurua/ N.º solicitudes 2- Onuradun kopurua/ N.º beneficiarios
2110.481.01.924.00	AUZOLAN PROGRAMAK. Auzolanean egiteko ekimenak. Programa trabajos en auzolan.	20.000	Deialdia/ Concurrencia	Auzoak	VI	1- Eskaera kopurua/ N.º solicitudes 2- Onuradun kopurua/ N.º beneficiarios
2110.481.02.924.00	BIDEA ELKARTEA. HITZARMENA. Hernani Burujae Erpin komunitarioaren dinamizazioa.	50.000	Izenduna/ Nominativa	Sozioekonomia	VI	1- Egindako jarduerak/ Análisis actividades

EREÑOTZU TOKI ENTITATE TXIKIA/ENTIDAD LOCAL MENOR EREÑOTZU

Partida zbk.	Azalpena Concepto	Zenbatekoa € Importe	Deialdi mota Tipo concesion	Saila Depto.	Lerroa Linea act.	Betetze adierazleak Indicadores
01.481.01.334.00	DOBERA EUSKARA ELKARTEA. Urumeako Kronikaren argitalpena. Latxe aldizkaria. Asociación DOBERA ELKARTEA. Convenio. Publicación de Urumeako Kronika y Latxe aldizkaria.	3.000	Izenduna/ Nominativa	Ereñotzu	IV	Irakurle kopurua/ N.º lectores
01.481.01.334.00	OLAK AUZO ELKARTEA. Auzoko kultur egitaraua osatzea. Asociación vecinal OLAK. Convenio. Programación cultural.	36.400	Izenduna/ Nominativa	Ereñotzu	III	Ekintza kopurua/ N.º actividades
01.481.01.334.00	UR MIA SOLAS ELKARTEA Kultur ekintzetarako. Asociación UR MIA. Convenio. Actividades culturales.	550	Izenduna/ Nominativa	Ereñotzu	III	Ekintza kopurua/ N.º actividades
01.481.01.334.00	UR MIA SOLAS ELKARTEA. Kirol ekintzak. Bola eta Toka. Asociación UR MIA. Convenio. Actividades deportivas. Bola y Toka.	550	Izenduna/ Nominativa	Ereñotzu	V	Ekintza kopurua/ N.º actividades
01.481.01.334.00	KATILUZAR GURASO ELKARTEA. TXIRRITA ikastetxeko eskolaz kanpoko jarduerak. Asociación educativa KATILUZAR. Convenio. Actividades extra-escolares.	1.500	Izenduna/ Nominativa	Ereñotzu	II	Ekintza kopurua/ N.º actividades
01.480.01.414.00	ESKOLA KIROLA JARDUERAK. Hernaniko Udalaren dirulaguntza deialdiaren bidez. Actividades ESKOLA KIROLA. A través de la convocatoria de Hernaniko Udala.	6.000	Norgehiagoka/ Concurrencia	Ereñotzu	II	1. Ikastetxe bakoitzeko ikasle kopurua 2. Jarduera mota eta kopurua
01.480.01.414.00	DIRULAGUNTZA NORBANAKOAK. Ur hornidura lanak egiteko. Convenio partikularen. Interes general. Acometida de agua.	6.000	Norgehiagoka/ Concurrencia	Ereñotzu	VI	Ekintza kopurua/ N.º actividades